

BALOREAK KONPENTSATZEKO, ERREGISTRATZEKO ETA LIKIDATZEKO SISTEMA BERRIA

KONTU MOTAK: SEGREGAZIOA, BABES MAILAK, INPLIKAZIO JURIDIKOAK ETA KOSTUAK (39. artikulua, 648/2012 Erregelamendua (EB))

SARRERA

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2012ko uztailaren 4ko 648/2012 Erregelamenduari (EB) jarraiki (hemendik aurrera, “EMIR araudia” edo “EMIR”), 2016eko Apirilaren 27an **Espainiako merkatuaren Konpentsazio, Erregistro eta Likidazio Sistema berria** hasiko da indarrean.

Besteak beste, nabarmentzekoa da sistemak azpiegitura berri bat bilduko duela; “Kontrapartida Zentraleko Erakundea (KZE)” izango da, BME Clearing izenekoa, eta haren bitartez konpentsatu beharko dira antolatutako negoziazio-merkatu edo -plataformetan negoziatutako Errenta Aldakorreko eragiketa guztiak.

Sistema berri horren arabera, **LABORAL KUTXAK** Bilboko Bursaren kide eta Iberclearreko erakunde parte-hartzaile izaten jarraituko du, eta BME Clearingeko Kide Konpentsatzaile Indibiduala izango da.

“EMIR araudiaren” 39. artikuluari jarraiki, **LABORAL KUTXAK** honako betebeharrak izango ditu, Kide Konpentsatzaile Indibiduala den heinean:

- a) Bezeroei segregazio indibidualeko kontu baten (ISA) edo segregazio orokorreko kontu baten –omnibus-kontua (OSA)– artean aukeratzeko aukera ematea.
- b) Bezeroei segregazio-maila bakoitzaren kostuen, babes-mailen eta inplikazio juridiko nagusien berri ematea.
- c) Segregazio-maila bakoitzaren kostuak, babes-mailak eta inplikazio juridiko nagusiak jendaurrean zabaltzea.

Dokumentu honen helburu nagusia “EMIR araudiaren” 39. artikulua betebeharrak betetzea da, eta horretarako informazioa honako atal hauetan egituratzen da:

- I. **KONTSIDERAZIO OROKORRAK.** Lehen atal honetan, Konpentsazio, Erregistro eta Likidazio Sistema berria labur-labur azalduko da.
- II. **KONTU MOTAK, EZAUGARRIAK ETA KOSTUAK.** Atal honetan, BME Clearingen erabil daitezkeen kontu mota desberdinak aurkeztuko dira, baita kontu mota bakoitzaren segregazio-maila eta dagozkion kostuak, babes-mailak eta inplikazio juridiko nagusiak ere.
- III. **LEGEZKO ERREGIMEN APLIKAGARRIA.** BME Clearingen segregazio- eta eramangarritasun-erregimenari eusten dion legezko oinarria adieraziko da.

I. KONTSIDERAZIO OROKORRAK

Balore Merkatuari buruzko uztailaren 28ko 24/1988 Legea aldatzen duen urriaren 4ko 32/2011 Legeak, Espainiako kontratazio ondoko jarduerak Europako beste herrialde batzuetako egiturekin nolabait homogeneizatzea sustatzeko helburuarekin, baloreak konpentsatu, likidatu eta erregistratzeko sistemaren erreforma antolatu du, hiru ardatz nagusiren bitartez.

Lehen ardatz gisa, kontratazio ondoko zerbitzuetan Kontrapartida Zentraleko Erakundearen figura ezarri da, baloreen gainean egindako transakzioen erosle eta saltzaileen artean bere kontura jardun behar duena, kontrapartida-arriskua bere gain hartuz eta transakzio horien ondorioz baloreen eta efektiboaren artean egin beharreko konpentsazioa eginez. Bursanegoziarioaren bitarteko prozesu batean edo transakzioaren negoziatio eta likidaziorako alde anitzeko sistema batean esku hartzeak aukera ematen du saldoetan soilik oinarritutako likidazio-sistema bat aktibatzeke.

Bigarren ardatz gisa, entrega ziurtatzeko indarrean dauden bitartekoak kenduko dira. Bitarteko horien arabera, salerosteko eragiketa guztiak likidatzeko konpromisoa zegoen, eta efektiboaren truke betiere gauzazko baloreak ematen ziren. Bitarteko horiek desagertuta, beste aukerarik ez balitz, eskudirutan konpentsatzeko aukera izango litzateke baldin eta baloreetara jotzeko aukerarik ez balego, sistemaren egonkortasunaren mesedetan. Inbertitzaileak ere babes-maila handia dauka, izan ere, funtsean, agente berezi batekin bakarrik jarri behar du harremanetan, hau da, gaitasun tekniko eta finantza-kaudimen handia duen kontrapartida zentraleko erakunde batekin, modu bilateralean egin beharrean, kontrako alderdiaren arrisku handiagoen menpe egon beharrik gabe. Horri esker, entregan hutsegitea izateko arriskua murriztuko da, guttiz desagertuko ez bada ere.

Hirugarren ardatz gisa, egungo kontrol-sistema, erregistro-erreferentzietan oinarritutakoa, desagertu egingo da, eta haren ordez saldoetan soilik oinarritutako sistema bat ezarriko da, kontrol-prozedura alternatiboekin batera.

Orain artean, MEFF izan da merkatu ofiziala eta Kontrapartida Zentraleko Erakundea. Eginkizunak bereizi izanaren ondorioz, MEFFk merkatu-jarduera hartu du bere gain, Produktu Deribatuen Merkatuaren Artekaitza Sozietate gisa, eta BME Clearing SAk, berriz, Kontrapartida Zentraleko Erakundearen jarduera kudeatuko du.

BME Clearing SAK honako zerbitzu hauek eskaintzen ditu:

- 1) **Jardutea.** BME Clearing kontrapartida zentrala izango da transakzioak Erregistro Zentralean idazten direnez geroztik, eta transakzioen ondoriozko betebeharretan jardungo du, Burtsan gauzatutako erosketa-eragiketa bakoitza salduz eta salmenta-eragiketa bakoitza erosiz. Hala, jatorrian kontrako alderdiak direnek ez dute elkarrekiko eskubide eta betebeharririk izango, eta BME Clearingen aurrean erantzun beharko dute bakarrik.

- 2) **Betebeharren konpentsazioa.** BME Clearingek bere gain hartuko du eskudirutan ordaintzeko eta Erregistro Zentralean erregistratutako transakzioen ondoriozko baloreak entregatzeko betebeharren konpentsazioa. Prozesu horretan, posizio batzuk ezarri behar dira, betebehar garbien kalkulua barne, eta posizio horietatik eratorritako esposizioak estaltzeko finantza-tresnak, efektiboa edo biak (finantza-tresnak eta efektiboa) eskuragarri badaudela ziurtatu behar da.

Kompentsazio hori oinarritzen da Balore Burtsak BME Clearingen esku uzten dituen dokumentuetan, eta bertan zehazten dira Burtsan gauzatutako eragiketen nondik norakoak eta baldintzak.

- 3) **Bermeak kalkulatzea, eskatzea eta kudeatzea.** Kompentsatu beharreko transakzioen likidezia ziurtatu nahi duen sistemaren parte izaki, kide konpentsatzaileek eta BME Clearingek finantzei eta kapitalari dagokienez bete beharreko betekizunez gain, azken horrek honako berme hauek eratzea eska dezake:
 - Posizioagatiko bermea, kontu bakoitzaren posizioaren arriskua estaltzeko helburuarekin.
 - Berme Indibiduala, kide konpentsatzaileei dagokienez BME Clearingek daukan arriskua estaltzeko helburuarekin.
 - Ezohiko bermea, ezohiko egoeretan BME Clearingen arriskua estaltzeko helburuarekin.
 - Berme Kolektiboa, neurriak hartzearen ondorioz sor litezkeen saldo zordunak estaltzeko helburuarekin, kide konpentsatzaile batek betetzen ez duenean.

II. KONTU MOTAK, EZAUGARRIAK ETA KOSTUAK.

Testuinguru berri honetan, antolatutako negoziazio-merkatu edo -plataformetan LABORAL KUTXAren bitartekotzarekin Errenta Aldakorreko eragiketak egiten jarraitzeko, Central BME Clearing Kontrapartida Zentraleko Erakundean honako kontu mota hauek erabil daitezke:

A. Segregazio Orokorreko kontua (omnibus-kontua):

- LABORAL KUTXA da kontu horren titularra, eta BME Clearingekin ez, baina LABORAL KUTXAren zuzeneko kontrako alderdiaren harremana duten hainbat bezero biltzen ditu.
- Edozein kasutan, kontuaren posizio gordinak Erregistro Zentralean erregistratzen dira, BME Clearingen kontura, eta azken horri dagokio likidazioak kalkulatzeko, posizioak likidatzeko, bermeak kudeatzeko eta aukerak gauzatzeko aukera esleitzea. Hala, Bezeroen transakzio eta bermeak erregistratu egiten dira, Bezero horien posizioen batura izanik, konpentsatu gabe.

Bezero baten transakzioei dagozkien bermeak BME CLEARINGen alde eraten dira, eta kontu horretan bildutako gainerako bezeroen transakzioekin batera erregistratzen dira. Berme horiek nahierara erabil daitezke kontu horretan erregistratutako edozein transakzio likidatzeko.

LABORAL KUTXAk betetzen ez badu, posizioak eta bermeak beste kide konpentsatzaile bati transferitzeko aukerak oso urriak dira.

- Araudi aplikagarriak LABORAL KUTXAri eska diezaioke, konpentsatu beharreko produktuen segmentuen arabera, Xehetasun Erregistro bat eramateko. Erregistro horretan LABORAL KUTXAk bezero bakoitzaren transakzio eta bermeak erregistratuko ditu, likidazioen kalkulua eta posizioen likidazioa eginez, bermeak kudeatuz eta aukerak gauzatzeko aukera esleituz, bezero bakoitzak LABORAL KUTXArekiko duen posizioa une oro islatuz.

Berme horiek LABORAL KUTXAren alde eratu dira, kontu horietan erregistratutako edozein transakziori dagokionez.

- LABORAL KUTXAk kaudimenik ez badu, eta BME CLEARINGek erabakitzen badu Segregazio Orokorreko Bezeroen kontua ixtea, ondoriozko saldo hartzekoduna LABORAL KUTXAren eskura jarriko da administratzaile konkurtsalaren bitartez, bezeroen kontura, eta LABORAL KUTXAk bere gain hartuko ditu saldo garbi zordunak.
- Administrazio eta zaintza Gastuak: Zenbatek. %0,06 efektiboarekiko gutxienez 5€ (sei hilabeteko)

B. Segregazio indibidualizatuko kontua.

- LABORAL KUTXA da kontu horren titularra, eta kontu horren bezeroa BME Clearingekin ez, baina LABORAL KUTXArekin harremana dauka kontrako alderdi zuzen gisa.
- Bezero bakoitzaren posizioak garbian erregistratzen dira Erregistro Zentralean BME Clearingen kontura, gainerako bezeroengandik aparte eta bezeroaren nortasuna adierazita. Hala, bezero horien transakzio eta bermeak erregistratu egingo dira, eta bezero horren posizioak une oro islatuko dira, banan-banan.

Bezero titularraren transakzioei dagozkien bermeak BME CLEARINGen alde eratzen dira, eta beste bezero batzuen transakzioak likidatzeko ezin daitezke erabili, azken horiek dauzkaten kontuak segregazio orokorrekoak edo indibidualizatukoak izan.

Posizioak eta bermeak beste kide konpentsatzaile bati transferitzeko aukera badago.

- Segregazio Indibidualeko kontuak dituzten bezeroak behartuta daude LABORAL KUTXAren aurrean eta bere alde (kide konpentsatzaile gisa) une oro eskatzen dizkion bermeak osatzen.
- LABORAL KUTXAK erabakitzen badu Kontu hori ixtea bezeroaren kaudimengabezia dela medio, saldo garbi hartzekoduna LABORAL KUTXAren esku jarriko da Bezeroaren kontura, eta LABORAL KUTXAK saldo garbi zorduna hartu beharko du bere gain.
- Bezero kontu indibiduala mantentzeak suposatzen duen zailtasun operatiboa dela eta, Laboral kutxak kontu indibidualari kostu gehigarria aplikatuko dio, Segregazio Orokorreko kontuari (omnibus-kontua) aplikatzen zaizkion komisioez gain. Horrela, kontu bakoitza mantentzeko gehigarriak diren behar operatiboak eta behar diren baliabideak kubrituko dira.

Segregazio orokorreko edo indibidualizatuko kontuei dagokienez, BME Clearingen posizio eta bermeen kontabilitate-bereizketa bermatua dago, honako arrazoi hauengatik:

- Aktiboak eta posizioak kontu bereizietan kontabilizatzen dira

LABORAL KUTXAren eta haren bezeroen bermeak Erregistro Zentralaren edo Xehetasun Erregistroaren kontuetan erregistratu eta kontabilizatzen dira, bereizita eta kasuaren arabera.

BME Clearingen alde eraturako bermeak gauzatzeko aktiboak eskudirua (eurotan) edo baloreak izan daitezke.

Eskudirua BME Clearingen bermeen kontuan gordailutzen da, TARGET2 plataforman (Espainiako Bankua, Eurosistema).

Berme gisa ekarritako baloreen kasuan, jabetzaren transferentziaren bidez edo pignorazio bidez IBERCLEAR erakundearen kasuan, edo jabetzaren transferentziaren bidez CLEARSTREAM erakundearen kasuan, dagoeneko gordailutu dira baloreen bi gordailuzain zentraletan BME Clearingen izenean irekitako berme-kontuetan.

- Kontu desberdinetan kontsignatutako posizioak konpentsatzeko aukerarik ez dago

LABORAL KUTXAri edo haren bezeroei dagozkien transakzio eta posizioak dagozkien kontuen artean kontabilizatu eta erregistratzen dira, haien artean inolako konpentsaziorik ezarri gabe.

- Kontu batean kontsignatutako posizioak estaltzen dituzten aktiboak ez daude beste kontu batean kontsignatutako posizioei lotutako galeren eraginpean.

BME Clearingen alde eraturako bermeek BME Clearingen aurrean balio dute soilik, eta bakar-bakarrik transakzio horiek BME Clearingekiko dakartzaten betebeharrak direla medio.

Era berean, LABORAL KUTXAren alde eraturako bermeek LABORAL KUTXAren aurrean erantzuten dute soilik, eta bakar-bakarrik transakzio horiek LABORAL KUTXArekiko dakartzaten betebeharrak direla medio.

Ez-betetze baten aurrean aplikatzekoa den prozedurari dagokionez, honako hauek nabarmendu behar dira:

- Bezeroak betetzen ez badu, LABORAL KUTXAk bere gain hartuko du ez-betetzea adieraztea eta ez-betetzea kudeatzeko behar diren neurriak hartzea. Hala, betetzen ez duen bezeroaren titulartasuneko kontuaren posizio garbia itxiko du LABORAL KUTXAk, araudian ezarritako kontratu-kompentsazioko aurreikuspenen arabera.
- LABORAL KUTXAk betetzen ez badu, beste kide kompentsatzaile bati eramateko bitartekoak badaude, edo bestela posizioak itxi egin daitezke, kontratu-kompentsazioko aurreikuspenak aplikatuz.

Segregazio indibidualizatuko bezeroen kontuetan edo segregazio orokorreko bezeroen kontuetan ez betetzearen ondoriozko kostu, gastu eta saldoen likidazioari dagokionez, saldo garbi hartzekodunak LABORAL KUTXAri itzuliko zaizkio, dagozkion bezeroen kontura, eta LABORAL KUTXAk bere gain hartuko ditu saldo garbi zordunak.

III. LEGEZKO ERREGIMEN APLIKAGARRIA.

1. **Eranskinean** bildutako xedapenetan, sistema berriaren eta kontu mota desberdinen funtsezko inplikazio juridikoak bildu dira, bermeak bereizteko, transakzioen eramangarritasuna, irmotasuna eta errebokaezintasuna bermatzeko eta kaudimengabezia tratatzeko erregimena araututa.

Xedapen horiek honako hauek dira:

- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2012ko uztailaren 4ko 648/2012 Erregelamenduaren (EB) 39. artikulua, burtsaz kanpoko deribatuei, kontrapartida zentralako erakundeei eta eragiketen erregistroei buruzkoa.
- Balore Merkatuari buruzko uztailaren 28ko 24/1988 Legearen 44 ter artikulua eta 7. idatz-zatiak.
- Ordainketa-sistemei eta baloreen likidazioari buruzko azaroaren 12ko 41/1999 Legearen 11., 13. eta 14. artikulua.
- Produktibitatea bultzatzeko eta kontratazio publikoa hobetzeko premiazko erreformei buruzko martxoaren 11ko 5/2005 Errege Lege Dekretuaren 3., 4., 5. eta 15. artikulua.
- Uztailaren 9ko 22/2003 Lege Konkurtsalaren 27.2.1 artikulua eta bigarren xedapen gehigarria.

Legeria aplikagarria Espainiakoa da, baina nolana ere, 41/1999 Legearen 15.2 artikulua babesean, legez eraturako eta beste Estatu kide batean egoitza duen erregistro batean sistemen likidazioari loturik inskribaturako bermeak, Espainiako sistema baten aldekoak, haren parte-hartzaileen aldekoak edo haren kudeatzailearen aldekoak izan, dagokion Estatu kidearen legeriaren arabera eraturako dira, haien benetako eragin juridikoei dagokienez. 5/2005 Errege Lege Dekretuaren 17. artikulua antzeko zerbait ezartzen du, 1. Eranskinean.

Hortaz, CBL Luxenburgoren eta Euroclearren gordailututako baloreen bidez eraturako bermeak Luxenburgoko eta Belgikako legeria bete beharko dute, aldez aurretik adierazitako gaiei dagokienez. BME Clearingek legezko iritziak jaso ditu Luxenburgoko eta Belgikako legerian adituak diren zenbait abokatu independenteren eskutik, eta, horri esker, bermeak behar bezala eratzearekin, galdagarritasunarekin, erga omnes aurka egiteko duten izaerarekin, betearazteko gaitasunarekin eta kasuan kasu bermea eratzeko duen parte-hartzailearen edo baloreen gordailuzain zentralaren kaudimengabezia-adierazpenak eduki dezakeen inpaktuarekin zerikusia duten funtsezko alderdi juridikoak aztertzei aukera izan dute. Legezko iritzi horietan lortutako ondorioen arabera ez bairik

gabe esan dezakegu funtsezko alderik ez dagoela Espainiako legeriak bermeak babesteko onetsitako erregimenari dagokionez.

1. ERANSKINA

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2012ko uztailaren 4ko 648/2012 Erregelamendua (EB), burtsaz kanpoko deribatuei, kontrapartida zentralako erakundeei eta eragiketen erregistroei buruzkoa.

Espanian zuzenean aplikatzekoa den Europako Erkidegoko Erregelamenduaren 39. artikulua araberan, Kontraprestazio Zentraleko Erakundeak eta haren kide konpentsatzaileek beren bezeroei eskaini beharreko segregazio-mailak arautu behar dira.

Agindu horrek honela dio:

“1. Kontrapartida Zentraleko Erakundeek dokumentazio eta kontu bereziak izango dituzte, eta horri esker, une oro eta berandutu gabe, Kontrapartida Zentraleko Erakundeekiko kontuetan bereiziko dituzte, batetik, aktiboen kide konpentsatzaile baten konturako aktibo eta posizioak, eta, bestetik, beste edozein kide konpentsatzailearen eta berorren aktiboen konturako posizioak.

2. Konpentsazio Zentraleko Erakundeek dokumentazioari eta kontu bereziei eustea proposatuko dute, eta horrela, kide konpentsatzaile bakoitzak bereizi ahal izango ditu, Kontrapartida Zentraleko Erakundeekiko kontuetan, kide konpentsatzaile horren aktibo eta posizioak batetik, eta haren bezeroen konturakoak bestetik («bezeroen omnibus-segregazio»).

3. Konpentsazio Zentraleko Erakundeek dokumentazio eta kontu bereziei eustea proposatuko dute, eta horrela, kide konpentsatzaile bakoitzak bereizi ahal izango ditu, Kontrapartida Zentraleko Erakundeekiko kontuetan, bezero baten konturako aktibo eta posizioak batetik, eta beste bezero batzuen konturakoak bestetik («bezeroen segregazio individualizatua»). Aldez aurreko eskaerari erantzunez, Kontrapartida Zentraleko Erakundeek kontu gehiago irekitzeko aukera eskainiko diete kide konpentsatzaileei, haien izenean edo haien bezeroen kontura.

4. Kide konpentsatzaile batek dokumentazio eta kontu bereziei eutsiko die, eta horri esker bereizi ahal izango ditu, bai Kontrapartida Zentraleko Erakundeekiko kontuetan bai bere kontuetan, bere aktiboak eta aktibo horien posizioak batetik, eta Kontrapartida Zentraleko Erakundeetako bezeroen konturakoak diren aktibo eta posizioak bestetik.

5. Gutxienez, kide konpentsatzaileek «bezeroen omnibus-segregazioaren» eta «bezeroen segregazio individualizatuaren» artean hautatzeko aukera proposatuko diete bezeroei, eta aukera bakoitzari dagozkion kostuen eta babes-mailaren berri emango diete, 7. atalean jasotakoari jarraiki. Bezeroek idazki bidez berretsiko dute hautua.

6. Bezero batek bezeroen segregazio individualizatua aukeratu badu, bezeroaren betekizunak gainditzen dituen maila oro ere Konpentsazio Zentraleko Erakundeak

gordailutuko da, gainerako bezero edo kide konpentsatzaileen marjinetatik bereiziko da; gainera, ez da beste kontu batzuetan erregistratutako posizioei lotutako galeren eraginpean egongo.

7. Kontrapartida Zentraleko Erakundeek eta kide konpentsatzaileek, eskaintzen dituzten segregazio-mailei dagozkien babes-mailak eta kostuak azalduko dituzte jendaurrean, eta zerbitzu horiek arrazoizko merkataritza-baldintzetan eskainiko dituzte. Segregazio-maila desberdinei buruzko xehetasunetan bilduko dira, batetik, eskaintako segregazio-mailen inplikazio juridiko nagusiei buruzko deskribapen bat, eta, bestetik, dagozkion jurisdikzioetan kaudimengabezia-alorrean aplikatzekoa den legeriari buruzko informazioa.

8. Bildutako berme-funtsera egindako ekarpen edo marjinak erabiltzeko eskubidea izango dute Kontrapartida Zentraleko Erakundeek, bahizko finantza-bermeko akordio bati jarraiki, eta zehazkiago Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren finantza-bermeko akordioei buruzko 2002ko ekainaren 6ko 2002/47/EB Zuzentarauaren 2. artikuluko 1. idatz-zatiari jarraiki, baldin eta haien funtzionamendu-arauak akordio horiek aintzat hartzen badituzte. Kide konpentsatzaileek idazki bidez berretsiko dute funtzionamendu-arauak onartzen dituztela. Kontrapartida Zentraleko Erakundeek erabilera-eskubide hori jendaurrean aurkeztuko dute, eta eskubide hori 47. artikuluari jarraiki beteko da.

9. Kontrapartida Zentraleko Erakundeekiko aktibo eta posizioen kontabilitate-bereizketaren betekizuna betetzat joko da baldin eta:

a) aktiboak eta posizioak kontu bereizietan kontabilizatzen badira;

b) kontu desberdinetan kontsignatutako posizioak konpentsatzeko aukerarik ez badago;

c) kontu batean kontsignatutako posizioak estaltzen dituzten aktiboak ez badaude beste kontu batean kontsignatutako posizioei lotutako galeren eraginpean.

10. Posizioak estaltzeko bermea aktibotzat joko da, berme horren baliokideak diren aktiboak edo berme oro gauzatzearen emaitza transferitzeko eskubidea barne, berme-funtsera egindako ekarpenak aparte utzita.”

24/1988 Legea, uztailaren 28koa, Balore Merkatuari buruzkoa

Balore Merkatuari buruzko uztailaren 28ko 44 ter artikulua 7. idatz-zatiak honako hauek onesten ditu: bermeen loturaren printzipioa, kontrapartida zentraleko erakundeak kontratu-kompentsazioko erregimen bat ezartzeko aukera, ez-betetzea gertatuz gero posizioen eramangarritasuna ahalbidetzeko behar diren lege-aurreikuspenak, eta bermeak bereizteko eskubidea, kideen, bezeroen edo kontrapartida zentraleko erakundearen kaudimengabezia gertatuz gero, jarraian adierazitakoaren arabera:

“7. Kontrapartida zentralako erakundearen barne-erregelamenduan bildutako erregimena betez eta bere jardueraren eremuan egindako edozein eragiketari dagokionez kide eta bezeroek eratzen dituzten bermeei eratzeko horren sorburuan egon ziren erakundearen aurrean erantzungo dute soilik, eta bakar-bakarrik eragiketa horiek kontrapartida zentralako erakundearentzat edo erakundeko kideentzat ekarritako betebeharrarako, edota kontrapartida zentralako erakundeko kide izatetik eratorritako betebeharrarako.

Erakundearen barne-erregelamenduak eta haren zirkularrek ezarri ahal izango dituzte kide baten kontratu eta posizio guztien mugaeguneratze aurreratua dakarten kasuak, beren konturakoak izan edo bezeroen konturakoak izan, eta horrek, erregelamendu eta zirkular horietan aurreikusitakoari jarraiki, konpentsazioa eta betebeharr juridiko bakarra sortzea dakar berekin, bildutako eragiketa guztiak barne; horri jarraiki, alderdiek eragiketa horien konpentsazioaren ondoriozko soldata garbia eskatzeko eskubidea baino ez dute izango. Aurreko kasuen artean obligazioak ez ordaintzea egon daiteke, baita prozedura konkurtsal bat irekitzea ere kide eta bezeroei dagokienez edo kontrapartida zentralako erakundeari dagokionez. Konpentsazio-erregimen hori kontratuzko konpentsazio-akordioa izango da Produktibitatea Bultzatzeko eta Kontratazio Publikoa Hobetzeko Premiako Erreformei buruzko martxoaren 11ko 5/2005 Errege Lege Dekretuan aurreikusitakoa betez, eta Ordainketa Sistemiei eta Baloreen Likidazioari buruzko azaroaren 12ko 41/1999 Legean jasotako erregimen espezifikoaren aplikazioa alde batera utzi gabe.

Kide batek edo kide baten bezero batek kontrapartida zentralako erakundearekin edo kidearekin hartutako betebeharrak betetzeari uzten badiu, guztiz edo zati batean, betetzen ez duenak ekarritako bermeak baliatu ahal izango dituzte, eta haiek baliatzeko behar diren neurriak hartu ahal izango dituzte horretarako, erakundearen erregelamenduan ezarritakoari jarraiki.

Kontrapartida zentralako erakunde baten kide bati edo haren bezeroetako bati prozedura konkurtsala ezartzen bazaio, kontrapartida zentralako erakundeak erabateko eskubidea izango du kide edo bezero horiek kontrapartida zentralako erakunde horren aurrean eraturako bermeetatik bereizteko. Aurrekoa gorabehera, bermaturako eragiketak likidatu ondoren geratzen den soberakina bezeroaren edo kidearen ondare-masa konkurtsalari gaineratuko zaio.

Kontrapartida zentralako erakunde bateko kideen bezeroei prozedura konkurtsala ezartzen bazaie, kideek erabateko eskubidea izango dute beren alde eraturako bermeei dagozkien finantza-tresnetatik eta eskudirutik bereizteko, kontrapartida zentralako erakundearen barne-erregelamenduan jasotako erregimena betez. Aurrekoa gorabehera, eragiketak likidatu ondoren geratzen den soberakina bezeroaren ondare-masa konkurtsalari gaineratuko zaio.

Kide baten konkurtsoa deklaraturik, kontrapartida zentralako erakundeak Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari emango dio horren berri, eta jarraian, bezeroen kontura erregistratua dauzkan kontratu eta posizioen intsuldaketa kudeatuko du, bermeei dagozkien efektiboarekin eta finantza-tresnekin batera. Horretarako, eskumeneko epaileak eta prozedura konkurtsalaren organoek kontabilitate-erregistroak jarriko dituzte kontratuak intsuldatu behar zaizkion erakundearen eskura, baita intsuldaketa benetan gauzatzeko behar diren bermeak, dokumentazioa eta erregistro informatikoak ere. Intsuldaketa gauzatzeko modurik ez badago, erakundeak aukera izango du kideak irekita dauzkan kontratu eta posizioen likidazioa erabakitzeko, bezeroen konturakoak direnak barne. Kasu horretan, kide horren aurrean bezeroek eraturako bermeei eta erregistratutako posizioei dagokienez aurrera eraman daitezkeen jardunak amaiturik, bezeroek gera litekeen soberakinetik bereizteko eskubidea izango dute.

Kontrapartida zentralako erakundeari prozedura konkurtsala ezartzen bazaio, eta kide baten kontratu eta posizio guztiak likidatzen badira, beren konturakoak izan edo bezeroen konturakoak izan, kontrapartida zentralako erakundearekiko betebeharrak bete gabe dauzkaten kide eta bazkideek bereizteko erabateko eskubidea edukiko dute, barne-erregelamenduari bat etorritik kontrapartida zentralako erakundearen alde eratu ondoren, bermaturako eragiketen likidazioaren ondorio diren bermeen soberakinari dagokionez, ez-betetzeko aurkako berme-funtsera egindako ekarpenak alde batera utzita.”

Bestetik, Balore Merkatuari buruzko Legearen 44 ter artikulua 4. idatz-zatiaren lehen tarteak onartzen duenez, BME CLEARINGen Erregelamendua balore-merkatuaren antolamendu- eta diziplina-araua da, honako hau ezartzen baitu:

“4. Kontrapartida zentralako erakundeek beren estatutu sozialak egingo dituzte, baita barne-erregelamendua ere, eta azken hori izango da balore-merkatuaren antolamendu- eta diziplina-araua.”

Azkenik, Legearen 44 ter artikulua 2. idatz-zatiak honela dio: *“2. Kontrapartida Zentralako erakundeak sistema gisa onetsita egon behar du ordainketa-sistemei eta baloreen likidazioari buruzko azaroaren 12ko 41/1999 Legearen xedeetarako.”*

41/1999 Legea, azaroaren 12koa, ordainketa-sistemei eta baloreen likidazioari buruzkoa.

Ordainketa-sistemei eta baloreen likidazioari buruzko azaroaren 12ko 41/1999 Lege horrek Espainiako antolamendu juridikora aldatzen du ordainketen eta baloreen likidazioaren sistemen likidazioaren irimotasunari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren maiatzaren 19ko 98/26/EB Zuzentaraua, irimotasuna, errebokaezintasuna eta galdagarritasuna onartzen ditu parte-hartzaileek sistema bati bideratutako transferentzia-aginduei dagokienez —eta agindu horiek ezin izango dira hirugarrenen aurka baliatu, ezta edozein arrazoirengatik inpugnatu edo ezeztatu ere— hala badagokio haien artean egin daitezkeen konpentsazioari dagokionez, konpentsazio horren ondoriozko betebeharrak dagokienez, eta onartutako transferentzia-aginduak edo

egindako konpentsazioa ongi bideratzen direla ziurtatzeko sistemak aurreikusitako beste edozein konpromiso likidatzeko helburua dutenei dagokienez (41/1999 Legearen 11. artikulua)

41/1999 Legearen 13. artikuluari jarraiki, sistema baten parte-hartzailearen edo kudeatzailearen kaudimengabezia-prozedura irekitzeak ez du eraginik izango parte-hartzaile edo kudeatzaile horren eskubide eta betebeharren gainean, baldin eta: a) irekitze hori sistemari jakinarazten zaion unea baino lehen sistemak jasotako eta onartutako transferentzia-aginduen ondorio badira, edo b) hala badagokio, komunikazioa jaso den egun baliodunean agindu horien artean egindako konpentsazioaren ondorio badira, edo c) egun baliodun horretan, onartutako transferentzia-aginduak edo egindako konpentsazioa ongi bideratzen direla ziurtatzeko sistemak aurreikusitako beste edozein konpromiso likidatzeko helburua badute.

Betebehar horiek likidatuko dira, sistemaren arauekin bat etorritz, sistemak dauzkan betebeharrak betetzeko parte-hartzaile horren likidazio-kontuan eskuragarri dauden funts edo baloreen kontura, eta parte-hartzaile horrek xede horretarako ezarritako bermeen eta gainerako aktibo eta konpromisoen kontura.

Dagokion sistemaren parte-hartzailearen aurka edo bermeak eratu dituen beste edozein hirugarrenen aurka irekitako kaudimengabezia-prozedurek ez dute inolako eraginik izango sistema baten kudeatzaileak edo parte-hartzaileak sistema batean bere alde eraturako bermei dagokienez dauzkan eskubideetan (41/1999 Legearen 14. artikulua), eta beraz bereizteko erabateko eskubidea izango dute. Berme horiek betearazteko aukera izango da aipaturako eskubideak baliatzeko.

Bermei dagozkien efektiboa eta balioak bermatutako betebeharren likidazioari aplikatzeko aukera izango da, baita kaudimengabezia-prozedura bat irekitzen denean ere, berme horien kontura dagozkion betebeharren likidazioaren ondoriozko soberakina kaudimengabezia-prozeduraren eraginpean dagoen parte-hartzailearen ondare-masari gaineratzeko aukera galarazi gabe.

5/2005 Errege Lege Dekretua, martxoaren 11koa, produktibitatea bultzatzeko eta kontratazio publikoa hobetzeko premiazko erreformei buruzkoa.

5/2005 Errege Lege Dekretuaren I. Tituluaren II. Kapituluak Espainiako antolamendura aldatzen du finantza-bermeko akordioei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002ko ekainaren 6ko 2002/47/EB Zuzentaraua, eta kontratuzko konpentsazio-akordioei aplikatzekoa da, baita finantza-bermeetako akordioei eta BME CLEARINGen eremuan eratzen diren finantza-bermei aplikatzekoa ere, kontrapartida zentralerako erakundeak diren heinean (5/2005 Errege Lege Dekretuaren hirugarren eta laugarren artikulua).

Kontratuzko konpentsazio-akordioei dagokienez, 5/2005 Errege Lege Dekretuaren bosgarren artikulua zera aurreikusten du, mugaeguneratzea aurreratzen bada, alderdiek, bakar-bakarrik, eragiketa horien likidazioaren ondoriozko saldo garbia elkarri eskatzeko eskubidea izango dutela. Saldo garbia kalkulatu da kontratuzko konpentsazio-akordioan edo harekin lotutako akordioetan ezarritakoaren arabera.

Errege Lege Dekretu horren hamabosgarren artikulua bermeei buruzko kaudimengabezia-prozedura bat irekitzeak dakartzan ondorioei buruzkoa da, eta honela dio:

“1. Prozedura konkurtsal bat edo administrazio-likidazioko prozedura bat irekitzeak ezin izango du ekarri finantza-bermeko akordio bat edo bermearen ekarpena baliogabetzea edo bertan behera uztea, betiere irekitze hori berme-akordioa gauzatu edo bermea ekarri ondoren ebazten bada; edota gauzatze edo ekarpen hori une jakin batean gertatzen bada, prozedura ireki aurretik, ebazpen bat eman edo beste edozein neurri hartu aurretik, edo prozedura horien ibilbidean beste gertaera batzuk agertu aurretik.

2. Prozedura konkurtsala edo administrazio-likidazioko prozedura egun berean irekitzen bada baina finantza-bermeko akordioa gauzatu edo bermea ekarri aurretik, bermea juridikoki betearazteko modukoa izango da, eta hirugarrenentzat loteslea, baldin eta onuradunak frogatzen badu ez zekiela ezer prozedura hori ireki izanaren inguruan, eta ez zuela zertan jakin.”

“4. Prozedura konkurtsal bat edo administrazio-likidazioko prozedura bat irekitzeak ez du mugarik, murrizketarik edo bestelako ondorioz eragingo finantza-bermeko akordioetan, eta beraz akordio horiek berehala betearazteko aukera izango da, bereizita eta alderdien artean adostutakoarekin eta atal honetan aurreikusitakoarekin bat etorritik.

5. Finantza-bermeko akordio bat gauzatzen bada edo finantza-berme bat ekartzen bada hartzekodunen iruzurraren ondorioz prozedura konkurtsal bat edo administrazio-likidazioko prozedura bat ireki aurretik, 22/2003 Legearen 71. artikuluan aurreikusitakoaren babesean suntsiarazi edo inpugnatu ahal izango dira bakarrik.”

Bestetik, hamaseigarren artikulua arau partikularrak ezartzen ditu kontratuzko konpentsazio-akordioei buruzko kaudimengabezia-prozedurak irekitzeak dakartzan ondorioei dagokienez, eta aurreikusten du prozedura horiek ezin izango dutela mugaeguneratze aurreratuaren deklarazioko, suntsiarazteko, amaitzeko, betearazteko edo antzeko ondorio baten aukeran eragin kontratuzko konpentsazio-akordioari edo haren esparruan egindako finantza-eragiketei dagokienez.

Beste Estatu batean gordailututako bermeei aplikatzekoa den legeriari dagokionez, 5/2005 Errege Lege Dekretuaren 17. artikulua honela dio: *“1. Kontuko idatzoharren bidez adierazitako baloreak xede dituzten finantza-bermeei aplikatzekoa den legea kontu nagusia kokatua dagoen Estatuarena izango da, eta kontu nagusia izango da idatzoharrak*

egiteko erabiltzen dena, idatzohar horiei jarraiki onuradunari kontuko idatzoharren pignorazio-berme hori eskaintzen zaiolarik. Estatu baten legeriari buruzko aipamena Estatu horren legeria materialari buruzko aipamena da, eta horregatik, arau bati jarraiki beste Estatu baten legeria aipatu behar bada garrantzizko gaia erabakitzeko, arau hori ez da aintzat hartuko.

2. Lege hori aplikatuko da gai hauekin zerikusia duen orotan:

a. Bermearen xedearen izaera juridikoa eta jabetzaren gainean dituen ondorioak.

b. Finantza-bermeko akordio bat hobetzeko betekizunak, eta akordioak eta bermeen ekarpenak hirugarrenen aurrean ondorioak ekartzeko behar diren betekizunak betetzea.

c. Tituluaren maila edo pertsona batek bermearen gainean duen eskubidearen maila, errebindikaturako beste titulu edo eskubideei dagokienez, edo fede onean eskuratze bat egin bada.

d. Betearazpena izan ondoren bermea gauzatzeko prozedura.”

Uztailaren 9ko 22/2003 Lege Konkurtsala

41/1999 Legearen eta Balore Merkatuari buruzko Legearen xedapenak, aldeztatik aipatu direnak, BME CLEARINGen gerta litekeen likidaziorako edo desegiterako erabiltzen dira, baita kapital-sozietateen edo zuzenbide konkurtsalaren alorreko merkataritza-arau orokorrak ere.

Administratzaile konkurtsalen izendapenaren harira, Lege Konkurtsalaren 27.2.1 artikulua zera dio, balore edo tresnen negoziazioa, konpentsazioa edo likidazioa bideratzeko ardura duen erakundearen konkurtsoaren kasuan, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalako teknikari bat edo batzorde horrek proposaturako beste pertsona bat izendatuko dutela administratzaile konkurtsal.

Kontrapartida Zentraleko Erakundeek ezaugarri bereziak, egiten dituzten jardueren izaera, Konpentsazio Zentraleko Erakundeek kudeatutako konpentsazio- eta likidazio-sistemen parte-hartzaileen interesak babestu beharra, finantza- eta balore-merkatuan betetzen duten zeregina eta Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak gainbegiratutako erakundeak direla (Balore Merkatuari buruzko Legearen 44. artikulua (ter) 5. idatz-zatia) aintzat hartuta, konkurtsoa izanez gero, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionala izendatu behar da administrazio konkurtsalean zuzenean inplikaturako erakunde, bidezko bada Kontrapartida Zentraleko Erakundea modu ordenatuan berreskuratu edo likidatzeko behar diren neurriak hartzeko aukera izan dadin.

Bestetik, Lege Konkurtsalaren bigarren xedapen gehigarriak ezartzen duenez, kreditu-erakundeek edo legez kreditu-erakundeekin parekatuta dauden erakundeek, inbertsio-zerbitzuen enpresen edo baloreen konpentsazio- eta likidazio-sistemetan parte hartzen

duten erakundeen konkurtsoetan, egoera konkurtsaletarako haien legeria espezifikoa ezarrita dauden espezialitateak aplikatuko dira, salbu eta administrazio konkurtsalaren osaerarekin, izendapenarekin eta funtzionamenduarekin zerikusia dutenak. Xede horietarako legeria berezia da, besteak beste, Balore Merkatuari buruzko Legea, 41/1999 Legea eta 5/2005 Errege Lege Dekretuan jasotakoa. Lege-arau horiek aplikatuko dira haietan bildutako eragiketa edo kontratuetarako aurreikusitako norainoko subjektibo eta objektiboarekin, eta bereziki, ordainketa-sistemei eta baloreen likidazio eta konpentsazioari lotutako eragiketekin, eragiketa bikoitzekin, salerosketa-itunaren araberako eragiketekin edo tresna deribatuei lotutako finantza-eragiketekin zerikusia dutenak